

ximple!





Agoizko Udala | Ayuntamiento de Aoiz

17. zenb. | nº 17

2019ko azaroa

ZERBITZUAK | SERVICIOS

Udaletxea | Ayuntamiento

948 33 60 05

Euskara Zerbitzua | Servicio de Euskera

948 33 65 65

Kultur Etxea | Casa de Cultura

948 33 66 90

Cederna Garalur

948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Servicio Social de Base

948 33 40 95

Liburutegia | Biblioteca

948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua |

Colegio e Instituto San Miguel

948 33 63 09

Bisitaldi gidatua Elizara | Visitas guiadas a Iglesia

637 44 81 07

Dya

948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak | Bomberos Voluntarios

948 33 65 00

Udal Pilotalekua | Frontón Municipal

948 33 61 64

Kirol Gunea | Complejo Deportivo

948 33 67 06

AURKIBIDEA

- 3 UDAL BERRIA OSATU DA
GARDENTASUN ATARIA, MARTXAN
- 4 INDARREAN DAGOENENKO, AGOIZKO IBILGAILUEN TRAFIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
- 5 HERRIKO ARGITERIAREN ALDAKETA
UDALETXEKO OBRAK BUKATU DIRA
ZERRATEGIKO AUZO-ALDEA EGOKITZEKO BULTZADA
- 6 CEDERNA-GARALUR-EN ESKUTIK, AGOITZ EKONOMIA BOROBILA SUSTATZEN HASI DA, "JOLASTU! "GUTXITU ETA BERRERABILI!"
"IRATI" TXANPONA SORTU DA
- 7 BELARDI BATZUK ERA BERRIA KUDEATUKO DIRA, BIOANIZTASUNA BULTZATZEKO PAISIAZ HITZ EGIN DEZAGUN
BOLUMEN HANDIKO OBJEKTOAK: KALEAN EZ
- 8 JUBILOTEKA ZERBITZUA MARTXAN DAGO
OSASUN ETXEKO OBRAK HASI DIRA
KIROL ERREZETA SORTU DA
- 9 ZAIINTZAK ETA GENERO IKUSPEGIA
HERIOTZA DUINA ETA BIZI TESTAMENTUA
BERDINTASUNEZKO ETA SEXU ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE
- 10 ELOKO TEILERIKO HILOBIA BEHIN BETIKO INSKRIBATU DA MEMORIAREN LEKUA BEZALA 1936. URTEAN FUSILATU ETA ERREPRESALIATUEN ALDEKO OMENALDIA
8 LIBURU GERRAREN IZUGARRIKERIA ULERTZEKO
- 11 JAIETAKO BALANTZEA
PARTAIDETZA HANDIA SANMIGELETAN
- 12 ONDAREARI BURUZKO EUROPAKO JARDUNALDIAK
AITORTZA EKITALDIA, AGOIZKO KULTUR TALDEEI
JABIER VILLAREALEN OMENEZ
- 13 XIV. ARGAZKI LEHIAKETA EBATZI DA
AGOITZERA AILEGATU ZIREN LEHEN INMIGRANTEEN FAMILIEI ERREKONNOZIMENDUA EGIN ZAIE
- 14 KULTUR BALANTZEA
- 15 KOSTRADAREN XXI. LASTERKETA
AGOIZKO KE-AK BELAR ARTIFIZIALEZKO ZELAI BERRIA ESTREINATU DU
AGOIZKO MENDI LASTERKETAREN IV. EDIZIOA EGIN DA
ESKU PILOTAKO UDAL ESKOLA, MARTXAN
- 16 EUSKARALDIA
ELAIDE WEB-ORRI BERRIA HELDU DA
HELDUEN MATRIKULA KANPAINA
EUSKOCHALLENGE

UDAL BERRIA OSATU DA

Emozioz beteriko kargu-hartze ekitaldi batean, Ángel Martín Unzuek txanda hartu zion Unai Lakori, eta alkate berria izanen da datozen lau urteetan.

Bilkura aretoa jendez gainezka zegoen: 300 bat lagun bildu ziren udal korporazio berriaren kargu-hartze bileran. Euskaraz eta gaztelaniaz, hamaika zinegotzi berriekin zin egin zuten «legeak aginduta». Marisa Goñik eta Joseba Corerak osatu zuten Adin Mahaia, udala osatzeko oinarrizko gobernu organoa.

Hautagai abertzale eta EH Bildu-ren (udala gobernatzeko zerrenda aurkeztu zuen talde bakarra) zerrendaburuak jaso zuten aurreko zortzi uretan (2011z geroztik) karguan aritutako alkateak, Unai Lakok, emaniko makila.

Alkate berriak eskerrak eman zizkion herri osoari pasa den maiatzaren 26an jasotako babesagatik, izan ere EH Bilduk 882 boto eskuratu zituen. Halaber, Ángel Martinek eskertu zuen aurreko korporazioek eginiko lana, hala nola harekin batera aurkeztutako udal talde berriari, garai berrian honetan beregan konfiantza jartzeagatik.

Udal programan adierazita zuen moduan, udala gardenagoa izateko lanean jarraitzeko konpromisoa hartu zuen, eta baita azken urte hauetan bultzatu diren feminismo, berdintasun eta gizarte politikak sendotzeko ere.

Hitzaldia amaitzeko, esker oneko hitz hunkigarriak izan zituen bere familiarentzat eta lagunentzat.

HONELA GELDITU DIRA ZINEGOTZIGOAK. Udalbatza berriak, pasa den ekainaren 20an egindako osoko bilkura berezian, ezarri zuen udal organigrama berria. Beste gai batzuen artean, bilkura arruntan maiztasuna erabaki zen: hileko lehen ostegunean izanen da, 19:00etan. Horretaz gain, beharrezko osoko bilkura bereziak eginen dira.

Zinegotzietan egotzi zitzairen lan arloak, eta banaketa honelaxe gelditu zen: Langileria eta herritarren Babesa (Ángel Martín Unzué Ayanz); Ondarea, Ingurunea eta Gara-

pena (Gentzane Reta Garralda); Hirigintza eta Etxebizitza (Joaquín Goñi Germán); Gizarte Ongizatea (Maite Fernández Font); Osasuna eta Berdintasuna (Marisa Goñi Lacunza); Kultura eta Jaiak (Joseba Corera Ripodas); Euskera eta Gazteria (Ekhiñe Gómez Laurencz); Hezkuntza (Sonia Madurga Arcelus); Kirola (Jokin Arruti Iribarren); Ekonomia eta Ogasuna (Aitziber Ugalde Martxueta) eta enplegua eta Turismoa (Juan Pablo Itoiz Ibáñez).

Gainera, erakunde eta batzorde hauetarako ordezkariak izendatu ziren: Cederna Garalur, Kanpondoa, Mankomunitateak, NUKF (FNMC), Nafarroako Antzoki Sarea... Udal web-orrian zehaztasunez ikus daitezke izendapen guztiak.



GARDENTASUN ATARIA, MARTXAN

Duela gutxi, Agoizko Udalak udalaren gardentasuna bermatzeko atal bat egokitu du bere web-orrian. Haren helburua da herritarrei udal gestioari buruzko informazioa zorrozki, egiazki eta objektiboki eskaintzea.

Gardentasun Ataria ezarrita, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko legeak agindutakoa betetzen da. Bertan ikusgai jarriko da jendaurrean jarri beharrek informazio guztia eta, baita, esaguratsu edo garrantzitsu gerta daitekeen udal arloko informazio guztia.

Gardentasuna Udalaren jarduketazuzendu behar duen ardatzetako bat da. Gardentasun Atari honen bidez, Udal gestioari buruzko informazio etengabea eta eguneratua eskaini nahi da.



Atala edozein herritarrek informazioa erraz jasotzeko moduan diseinatu dago. Besteak beste, honako informazio hau eskainiko da: udalak sinatutako hitzarmenak eta kontratuak, dirulaguntzak, aurrekontuaren egoera, gobernu organuen osaketa eta abar.

Udalak tresna bizi eta dinamikoa eskaintzeko konpromisoa hartu du, informazio guztia erraz ikusi ahal izateko diseinatu-takoa.

Gardentasun Atarian nahi duzun informazioa aurkitzen ez baduzu, informazioa jasotzeko eskubidea baliatu eta eskatu ahal duzu, atal horretan bertan eskaintzen den formularioaren bidez.

ximple!

Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotziek osatzen dute eta udal teknikarien eta garapeneko agentearen laguntza dute. Horiek aukeratu eta idatziko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.

INDARREAN DAGOENAKO, AGOIZKO IBILGAILUEN TRAFIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Agoizko Udalak, 2019ko martxoaren 7an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Ibilgailuen joan-etorria Agoitzen arautzen duen udal ordenantza.

Ordenantzaren testu osoa, 87 artikulua (haien artean, isunak jartzeko prozedura zehazten duena) eta eranskin bat, 2019ko abuztuaren 27an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO), eta behin betiko onetsita gelditu da.

Ordenantza Agoizko ibilgailuen zirkulazioa arautzeko eta egonkortzeko eta alde zaharra oinezkoentzat egokitzei begirako beste neurri bat da.

Jakitun gara ordenantzak, hasiera batez, nahasmena sorrarazi dezakeela garatzeko orduan. Baina kontuan hartu behar dugun gure zeregina dela gure herriko ibilgailuen trafikoa arautzea, Agoitz jasangarriagoa eta ibilgailuen eta oinezkoen presentzia batezgarri izan daitezela.

ARAU OROKORRAK

- Debekaturik dago ibilgailuak eremu publikoan konpondu edo garbitzea, edo haien mantentze-lanak egitea.
- Ziklomotorrak erdibaterian aparkatuko dira galtzadan.
- Debeku da bizikletak, patinak, gurpil-oholak eta gurpil-ohol elektrikoak espaloietan, oinezkoendako eremuetan eta lorategietan barna ibiltzea.
- Debeku da ibilgailuak Agoizko herri-gunean ibiltzea, garraiatzen badituzte merkataritzako gai arriskutsuak. Arau hau ez da aplikagarria gasolioa edo butanoa garraiatzen duten ibilgailuen kasuan.
- 5.000 kg-tik goitiko BGPa duten ibilgailuek debeku dute udal-mugarteko bide guztietan aparkatzea. Aurreko lerroaldean ezarritakoa ez zaie aplikatuko horretarako udal baimena duten ibilgailuei.
- 3.500 kg-tik gorako BGPa duten ibilgailuak aparkatzeko, Agoizko industrialdean Gamesaren eta Aspaceren artean dagoen orubea, eta 21 bidaiari baino

gehiagorendako tokia duten autobusen-dako, zahar etxearen ondoko orubea.

- Karabanak hirigunean soilik aparkatzen ahalko dira udalak horretarako gaitutako eremuan, Euntzebidea eta Irati auzoaren artean.

NEURRI ZEHATZAK

Domingo Elizondo auzoa, Mariano Garcia, Irigoien, Santa Ana, Labeko zeharkalea, Trinkete, Larrinetako, Merkaturako plaza, Hiriko, Plazako, Erreginordearen, Pasalekua, Kaskabobo eta Maskarita, Francisco Yndurain, Errotako Aldapa, Karrika Meharrakalearako, honako arau hauek ezarri dira:

- Debeku da aparkatzea.
- Sarbidea bertan bizi direnei/merkatariari mugatua. 10 minutuko geldialdia egiten ahalko dute.
- Lehentasuna oinezkoek dute.
- Oinezko karraketan gehieneko abiadura 10 km/h izan da.
- Zama-lanak 8:00etatik 12:00etara, astelehenetik larunbatera, baimen bereziak igande eta jaiegunetarako.
- Zirkulazio librea, seinaleak errespetatuz, ondoko karraketan: Santa Agata, Karrika Berria, Udaletxeko Plaza, Landako, eta San Migel.

Trafiko murriztuko baimena txartela eskatu ahal da. Horretarako, baldintza hauek ezarri dira:

a) Iraunkorrak:

Ohiko bizilekuko egoiliarak, ade zaharreko saltokietako titularrak, bigarren etxebizitza Agoitzen izan eta ibilgailurik atxikirik ez dutenak, alde zaharrean ibilgailu egoiliarrik ez duten mugikortasun urriko pertsonen ahaideak, osasun etxeko langileak, gizarke zerbitzuak.

b) Unean unekoak:

Gremioak (obra baimena dutenak) eta profesionalak, hileta zerbitzuak, aldi batez gaoxorik dauden bizilagunak eta udaletik beharrezko jotzen diren beste batzuk.

MENDIBURUA PLAZA

- Espaloi bat gaituta dago ibilgailuak bertan aparkatzeko.
- Ezin izanen dira ibilgailuak 10 minutuz baino gehiago aparkatu. Orduetgia: astelehenetik ostiralera: 8:00-20:00. Larunbat eta igandeetan: 8:00-14:00.
- Plazako gainerakoan debeku da zeinahi ibilgailu gelditzea edo aparkatzea.
- Badira zama-lanetarako guneak gaitu dira. Orduetgia. 08:00etatik 12:00etara, astelehenetik larunbatera, baimen bereziak igande eta jaiegunetan.

Ordenantzak, gainera, kaleen norabidea eta aparkatzeko eta zama-lanetarako eremuak zehazten ditu.

ISUNAK JARTZEKO PROZEDURA

Ordenantzaren arau-haustea isunak ekarriko ditu, 100 eurokoak arinenen kasuan eta 1.000 eurokoak larrienean hain zuzen ere.

Halaber, ordenantzaren kontrola Foruzaingo eta Goardia Zibilaren esku gelditu da.

Ordenantza pasa den 2019ko azaroaren 4an hasi zen aplikatzen.

ORDENANTZA OSOA, HEMEN IKUSGAI



UDAL WEB ORRIA

agoitz.eus/ordenanza-traffic-aoiz

NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALA

navarra.es/home_es/Actualidad/BON/

2019ko abuztuaren 27a, asteartea
168. zenbakia - 10595. orrialdea

HERRIKO ARGITERIAREN ALDAKETA

Duela aste batzuk hasi ziren Agoizko argiteri publikoko berritze, hobetze eta segurtasun lanak.

Proiektua 521.007,63 euroan (BEZa barne) esleitu zitzaion "Montajes Eléctricos Pamplona S.A" enpresari 2018ko abuztuaren, eta oraingo argiteria aldatzean datza, LED argiak jarri, lehengo argiak baino ekologikoak eta ekonomikoagoak baitira. Guztira 1.092 argi-puntu aldatuko dira, herrian dauden ia guztiak.

Herriko argiteria hobetzeko berealdiko proiektu hau Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuarekin (IDAE) ailegaturako akordioari esker martxan jarri ahal izan da, izan ere, entitateak obra osoaren

gastua estaltzeko moduko interesik gabeko mailegua (entitate publikoa baita) eman zion Agoizko Udalarari.

Aipaturako mailegua hamar urtetan ordaindu beharko da, hilabeteko kuoten bidez.

Argiak aldatzearekin kontsumo elektrikoak aurreztuko da (urtean 80.000 bat euro), eta aurreztutakoarekin mailegua ordaindu ahalko da, argiteri publikoa berri-eratu eduki eta energiaren kontsumo publikoa optimizatzeaz gain.

Argi guztiak hiru hilabete eta erdian aldatuta egonen dira aurrikusita dago.



UDALETXEKO OBRAK BUKATU DIRA

Berriki bukatu dira udaletxea zaharberritu eta egokitzeko obrak.

Obraren helburua teilatua konpondu eta iragaitza bihurtzea zen. Obra baliatu dute ere sabaian erabilera anitzeko areto berri bat egokitzeko; eta bertan EL IRATI, S.A.-ri buruzko erakusketa iraunkorra egonen da. Halaber, igogailua jarri da, eraikineko udal bulego eta aretoetara igotzeko.

Obrak iraun duten denboraldia aprobetxatu da bulego orokorretako antolaketa berria egiteko: mapara bat jarri da publikoari arreta ematen zaion lekuan, eta, horri



esker, herritarrek intimitate gehiagorekin egin ahal izanen dituzte kontsultak eta tramiteak.

Obrak bukatu, berriro zabaldu da eraikineko albatea, eta, orduetik aurrera, arreta betiko beti bezala ematen hasi da, alegia, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.

Proiektua Nafarroako Gobernuaren 2017-2019 Toki Azpiegiturako Planean aurrikusitakoa zegoen, Construcciones Leache enpresak egin du. 197.700 euro + BEZa aurrekontua izan du.

ZERRATEGIKO AUZO-ALDEA EGOKITZEKO BULTZADA

Agoizko eta Longidako Udalek, norberak egindako osoko bilkuran, Zerrategiko auzoa balioan jartzeko proiektuari ekiteko lankidetzara hitzarmena onetsi zuten. Iturralde Elkartearekin sinatutako hitzarmenari esker ere, El Irati faktoria izandakoaren historia eta ondare balioa ezagutu eta eza-gutzero eman ahalko da.

Proiektuaren aurrekontua 27.318 eurokoa da, eta udalek erdibana finantzatzeko dute, egitasmoaren sustatzailea Longidako udala baldin bada ere. 2019.eko PDR-n sartzerako asmoa dago, obra exekutatzeko dirulaguntza jaso ahal izateko.

Iniziatibari esker, industria ondare honen inguruaren parte bat berreskuratu ahalko da. Horretarako, informazio panelak jarri eta askaltokia eta aparkaleku bana egokitu dira. Horretaz gain, industria multzoa zeharkatzen duen bidea konponduko da.

Orain eginen diren jarduketan helburua Nafarroako Gobernu Zerrategiko auzoaren Zuzendaritza Plana prestatzeko abiapuntu bilakatzea da. Kontuan hartu behar da, gainera, Iratiko Bide Naturalarekin, Pirinioetako Galtza Erromatarrarekin eta Eurovelo-rekin lortzea, balioa eta eman ditzakeen aukera handitzea.



CEDERNA-GARALUR-EN ESKUTIK, AGOITZ EKONOMIA BOROBILA SUSTATZEN HASI DA, "JOLASTU! "GUTXITU ETA BERRERABILI!"

Agoizko 40 haurrek parte hartu zuten pasa den urriaren 5ean Agoitzen egindako "Jolastu! "Gutxitu eta Berrerabili!" jaian.

Ekimena Cederna-Garalur elkarteak antolatutakoa zen, Irati Hiru Hondakin Mankomunitatea eta Guraso Elkarte eta Karekin Kulturaren laguntzarekin, eta haren helburua zen baztergarri ez diren hondakinaren tamainaz ohartaraztea; izan ere, egunero brick, lata, botila eta plastikoa andana botatzen dira, eta haiei bigarren erabilera bat eman ahal zaie, jostailu bilakatu, esaterako.



Hala, jaira bertaraturako haurrek boloak egin zituzten esne botilak apainduz, eraikina osatu zituzten tetra-brik kutxa hutsekin, letxugak landatu zituzten berrerabilitako eta propio dekoratutako ontzietan eta jostailuak egin zituzten plastikozko botilekin. Txetxu Collado aktoreak girotu zuen jarduna. Irati Giri Hondakin Solidoen Mankomunitateak, gainera, gure garbi mugikorra eraman zuen, haurrek plastikozko ontziak bertan utzi eta haien truke Irati txanponak eskura zituzten. Mankomunitateak Irati txanpona martxan jarri du, birziklapena sustatzeko, eta inizatibari atxiki diren herriko 14 komertziotan erabil daiteke.

Bestalde, Patxi Huartek, herriko haurrekin batera, instalazio kolektibo bat egin zuen botila, tapoi, lata, azpil eta ontziez baliatuta, jendaurrean Kultur Etxean jarriko dena hel du diren asteetan. Egindako jostailuak, berriz, hezkuntza zentroi oparitu zaien, sentsibilizazio kanpainak aurrera jarrai dezan.

Aktibitatea "Nafarroa borobila" deitutakoaren markoan egin da. Nafarroako Tokiko

Ekintza Taldeek elkarkidetzan antolatutako proiektua Nafarroako Gobernu Toki Garapen Departamentuak finantzatu eta Lur-sareak (Jasangarritasunerako Nafarroako Agentzia) koordinatu du. Haren helburua da ekonomia borobila sustatzea Foru Komunitateko landa eremuan, LEADER ikus-puntuarekin.



"IRATI" TXANPONA SORTU DA

Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak duela gutxi aurkeztu zuen "Irati" tokiko txanpon soziala, entitateak mankomunatuta dituen herrietako ostalaritza zerbitzuekin eta merkatariarekin. Iniziatiba honek plastikoen (ontziak ez) birziklatzea saritu nahi du, jendea ingurunea zaintzearen alde eta ekonomia biribilera ailegatze-ko herriko merkataritza bultzatzeaz gain.

Proiektu hau aitzindaria da Nafarroan eta Estatuan. Haren aurkezpen ekitaldian Mabel Cañada Irati RSU Mankomunitatearen presidentea parte hartu zuen, Xabier Lasa Toki Administrazioaren zuzendari orokorra-ekin eta Iñaki Urrizalki Nafarroako Honda-

rren Partzuergoko zuzendariarekin batera. Bertan elkartu ziren udal eta Cederna Garalurreko ordezkari, merkatari, ostalari eta herritar asko.

Oso erraza da txanponaren funtzionamendua. Plastikoa, edukiontzi berdera eramaten diren ontziak izan ezik, garbi eta ongi berezita, herri bakoitzean Gune Garbiko furgonetara kokatzen den lekura eramaten datza. Agoitzen, esaterako, ostegunetan eraman daiteke, 11:00-13:00, azoka egiten den plazan egoten den furgonetara. Han, eramandakoa pisatu eta plastiko 2 kiloko «Irati» bat emanen da.

Lortutako «Irati» txanponak Agoitzen eta eskualdean erabili ahal dira kanpainara atxikitako komertzio eta establezimenduetan. Leku horietako sarreretan "Sí, Irati, Bai" kartela egonen da ikusgai, txanponak dituzten bezeroak bereiz ditzaten. Bezeroak nahi duen produktua erosteko aski «Irati» ez badu, euroekin ordain dezake gainerakoa.

Ekimenarekin herritarrek, tokiko komertzioak eta ingurunea gertatuko dira irabazle. Izan ere, «Irati» txanpon sozial alternatibo bat baino askoz gehiago da, denentzako aurrera eraman behar den proiektua, alegia.



BELARDI BATZUK ERA BERRIA KUDEATUKO DIRA, BIOANIZTASUNA BULTZATZEKO

Hiri batzuk beren hiruguneetarako mantentimendu txikia behar duten belardi-lorategiak diseinatzeko ari dira. Ereku berde horiek, azpiegitura berdeak deitutakoa korain, kostu txikikoak dira, bai ureztatzeko orduan, bai mantentzeko orduan, eta bioaniztasuna bultzatzen eta ezagutzera ematen dute hiru guneetan.

Agoitzen 35.000 m² belardi ditugu, parke eta beste eremu batzuk batuta. Beraxitoan belarra erein zen 15.000 m²ko zelai batean, baina ez da zorospila. Duela 15 urte egokitu zen, eta ez du ureztatzeko sistemarik jarri-ta. Zorua nahiko irregularra da, eta, hortaz, mantetzeko lanak garestiagoak dira. Aurten erabaki da aisialdi gune eta bideen ondoko belarra moztea, eta gainerakoa moztu gabe uztea, landare interesgarriak edo balio ekologiko handikoak haz daitezten.

PAISIAZ HITZ EGIN DEZAGUN

Paisaiaren Europako Hitzarmenaren (CEP) arabera, paisaia naturaren eta gizakiaren arteko hartu-emanaren ondorioa da. Lurraldearen edozein leku herritarrek antzematen duten moduari egiten dio erreferentzia.

CEP-i egindako proposamenari erantzunez eta gizarteak nor bere lekuan bizi duen paisaia dela eta, Nafarroako Gobernuak, NASUVINSA-Lursarearen bidez (lurral-



Udaberrian belarra ez mozteak beste zenbait landare ateratzen laguntzen du, orkideak, landareen munduko espezierik garatuenetarikoa, esaterako. Parke horre-

dearen eta jasangarritasunaren agentzia nafarra), "Paisaia dokumentua" izenekoa presta-tzen ari da, Pirinioetako Lurraldea Antolatze Planaren barnean. Horretarako hiru foro deitu zituzten, herritarrek beren ekarpenak plazaratu ahal izan zituzten, azaldutako aurretiko azterketak eztabaidatu eta adostutakoan.

Topaketa horietako bat Agoitzen izan zen, paisaia gorde eta kudeatzeko (etorkizuna,

tan zazpi orkidea mota dezberdin topa ditzakegu. Baina badira beste lore eta belar espezie batzuk, eremu horretan hatzen direnak, malbak, urrebotoiak, geranioak, zaingorri bostorriak, ezkaia, gladioloak, lioa eta abar, koloreak eman eta osasun arloan erabiltzeaz gain, intsektuentzat eta txorrientzat jatekoak direnak.

Laburbilduz, larreak baloreen jartzean datza, eta kontuan hartzea horrelako aukerak oso lagungarriak direla ingurune eta paisaiarako. Leku horietan, paseatzen ari garen bitartean, landareak eta fauna beha ditzakegu, udalerriko hiribarean bertan.

Kudeatzeko modu berri hau ulertuko duzuelakoan eta belardia utzia ez dagoela pentsatuko duzuelakoan gaude.

jomugan) orientabideak eta jarraibideak finkatzea helburu zuena hain zuzen ere. Beste bi gehiago egin dira Erronkarin eta Auritzen.

Pirinioetan egiten ari den lan hau bukatuta dago Nafarroako beste eremu batzuetan, eta, dagoeneko, oso aurreratu gurean. Teknikoki, alderdi asko identifikatu dira, eta orain herritarrekin konpartitu eta hobetu nahi dira.

BOLUMEN HANDIKO OBJEKTUAK: KALEAN EZ

Azken garaian, maiz, bolumen handiko objektuak topatu izan ditugu herriko zenbait lekuetako edukiontzietan, hala nola horien kanpoaldean. Gogorarazi nahi dugu Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak doan eskaintzen duela etxeko bilketa zerbitzua.

Emauseko Traperoen esleituta dauka tarmaina edo ezaugarriengatik edukiontzietan sartzen ez diren objektuak etxe etxe jasotzeko zerbitzua. Objektuak oraindik erabiltzeko moduan baldin badaude edo konponketa erreza baldin badute, egokitu eta salgai jartzen dira Traperoen azokan; eta erabili ezin badira, hautsi eta piezaz pieza birziklatzen dira.

Objektuen bila joateko 948 33 62 17 telefonora deitu behar da, eta Irati HHS Mankomunitateak jakinaraziko du zein egun eta ordutan joan den horren bila.

Denen artean ingurua eta herria zaindu behar dugu. Zaindu Agoitz, zure etxea baita.



JUBILOTEKA ZERBITZUA MARTXAN DAGO

Agoizko Udalak baliabide berri bat jarri du martxan estreinatutako berriko jubilotekaren bidez.

Jubilatuaren Zerbitzuaren helburua pertsonen autonomia sustatzea eta haien egoera biopsikoziala hobetzea da. Zahartzearekin batera gertatzen den nariadura fisikoa, soziala eta kognitiboa prebenitzea du helburu, mugimendu garapena jarduera fisikoen bidez (gimnasia, geronto-gimnasia, erlaxazioa) eta estimulazio kognitiboa (memoria ariketak, tailerrak eta jolasak) eta, horrela, zure ongizatea sustatu.

Jubilea (Gizarte Etxearen beheko solairuan dago) astelehenetik ostiralera zabalik dago goizeko 10etatik aurrera. 13:00etan Sarbide baldintzak 65 urte dituzte, errodatuta egon Agoitzen eta ez dute mendekotasun larri edo larririk. 30 euroko hileroko kuota du, eta izena ematea Udalaren edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bidez egin behar da.

Jubiloteka "piloto fasean" dago, eta udalak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera aritzeko esleipena egingen du.



OSASUN ETXEKO OBRAK HASI DIRA

Hasi dira, dagoeneko, Agoizko Osasun Etxea zabaltzeko eta barnealdeko zenbait espazio egokitzeko obrak. Lanak 575.000 euroko aurrekontua du, eta 12 hilabete epea izanen dute horiek exekutatze-ko. Boreste, S.A. eta Iguar Obras enpresek osatutako UTEri esleitu zaizkio obrak.

Osasun Etxeari solairu bakarreko 700 m²-ko eraikin berri bat erantsiko zaio, galeria baten bidez lotuta egonen dena. Espazio berrian pediatria bi kontsulta egingen dira, larrialdietarako sala berri bat eta itxaron gelak. Horretaz gain, gaueko larrialdiak atenditzeko lan egiten duten profesionalentzako apartamentu bat egiteko espazioa aurrikusita dago.

Oraingo eraikinaren bulego batzuk ere berriak dira, balio anitzeko aretoa, la-

rialdientzako kontsultategia, komunak, biltegia eta bulego nagusia, besteak beste, eta, ondorioz, barnealdeko banaketa berria izanen da.

Agoizko oinarrizko eskualdeari 3.854 osasun txartel egokituta. Horietako 3.201



pertsona helduenak dira eta gainerako 653 pediatria zerbitzua jasotzen dituzten haurrenak.

Osasun Etxean, goizeko ordutegiarekin honako profesional hauek aritzen dira: hiru familia mediku, eta beste hainbeste familia eta komunitate erizain, pediatria bat eta erizaina, eta gizarte langile bat. Gauetan eta asteburuetako arreta emateko, berriz, hiru mediku eta hiru erizain aritzen dira.

Goizeko ordutegiarekin zerbitzua ematen da, osasun etxean izan ez ezik, Urrotz eta Orotz-Beteluko kontsultategietan. Honako hauek dira Agoizko oinarrizko eskualdea osatzen duten gainerako udalerrak: Artzibar, Longida, Itzagaondoa eta Untzitibar.

KIROL ERREZETA SORTU DA

Agoizko osasun etxeak, Kanpondoa kirol guneak eta udalak patologia jakin batzuk dituzten pertsonen zuzenduta dagoen kirol errezeta deitutako programa abiatu dute.

Proiektu honen bidez, osasun etxeko osasun-langileek farmakologia errezetaz gain, aktibitate fisikoa egiteko aginduko die gaixo kronikoei, KIROL ERREZETAren bidez.

Horrekin Kanpondoko instalazioetara joan daitezke, bakoitzari hoberen egokitzen zaion osasun kirol-programan sartzeko.

Ohitura osasungarriak sustatzea Agoizko herritarren artean, ariketa fisikoko eta osasun programei atxikitzea, udal baliabideak erabiltzea, osasun publikoko sareari lotuz, dira, besteak beste, ekimen honen helburuak.

Proiektua, Agoitzentzat jasangarria izateaz gain, erabateko konfidentzialtasuna bermatzen du, eta trebatutako kirol monitoreekin aktibitate fisikoa egiteko aukera eskaintzen du.

Informazio gehiago eskura daiteke Kanpondoa eta Agoizko Osasun Etxean.



ZAINTZAK ETA GENERO IKUSPEGIA

Agoizko Udaleko berdintasun arloak, Jubilatuen, Pentsiodun eta Alargunen Plataformarekin batera, adinekoen beharrak eta zaintzen balioari buruzko hitzaldi interesgarri bat antolatu zuen. Rut Iturbide genero adituak eman zuen, eta gaiari ikuspuntu horretatik ekin zion.

Aurelio León aretoan elkartutako jendetzak arretaz jarraitu zuen hitzaldia. Kontzeptu berri batez, herri hitz egin zen: herriarrak. Horren xedea zaintzak eta zaintzen balioa gure bizitzaren erdigunean jartzea da, alegia, bizitza sostengatzen dutela ulertaraztea.

Gure bizitzaren edozein momentutan izanen dugu horien beharra, izaki urrakorrak garelako eta beste pertsonen atentzioa behar izanen dugulako, ez bakarrik gaixotzen garenean edo bizitzaren etapa jakin batzuetan, zaintzak harremanak, maitasuna eta lotura direlako. Zaintza horiek eskatzen duten lana orekaz banatu behar dira generoari

dagokionez. Lan iraunkorra da, amaiezina, horrek dituen ondorio guztiek.

Lan mota horiek gure gaurko gizartean ikusgarri eta orekaz banatzea da gakoa. Zaintzailez, emakumezkoen zein gizonezkoen,

hitz egiten hasi behar dugu. Laburbilduz, zaintzen duten pertsonen lana aitortzen eta ikustarazten hasi behar dugu, eta erdian jarri behar dugu bizitzan benetan garrantzitsuena dena. Hain zuzen ere, merezi duen bizitza bizitzea.



HERIOTZA DUINA ETA BIZI TESTAMENTUA

Agoizko udalak eta osasun etxeak antolatuta eta Emiratu, Alargunen eta Pentsiodunen Plataformarekin lankidetzan, Gizartetxeko egoitzan eman zen heriotz duina eta bizi testamentuari buruzko hitzaldi interesgarri bat.

Gaur egun, gero eta gehiago hausnartzen dugu gure osasunean eragina duten erabakiei buruz, eta gai horiekin ere gero eta gehiago inplikatzeko gara. Osasunari eta bizitzari buruzko autonomia osasun tratamendua jaso nahi den erabakitzeko eskubidea dakar, nahiz eta erabaki hori ez etorri beti bat osasun arloko profesionalen iritziarekin.

17/2010 Foru Legeak, azaroaren 8koak, pertsonen osasun arloko eskubide eta betebeharrak, arautzen du etorkizunerako zaintzak eta erabakiak adierazteko aukera, aurretiko borondateak deituriko dokumen-



tuaren bidez (bizi testamentua).

Aurretiko borondateen edo jarraibideen adierazpena gure borondatea adierazteko

gaitasuna galtuta izanen dugun momentu horretan jaso nahi ditugun osasun tratamenduak eta zaintzak erabakita uzteko modua da.

Aurretiko borondate dokumentua erredaktatzeko helburu eta ondorioen inguruko hausnarketa egitea eskatzen du. Dokumentu hori dagoenean, osasun-profesionalek jakin dezakete zein den gaixoaren borondatea, eta hori oso lagungarri gerta daiteke erabaki medikuak hartzeko roduan.

Soco Lizarraga medikoak eta DMD (duintasunez hiltzeko eskubidea) elkarteko ki-deak eta Marta Lainez gizarte langileak bilerara joandakoei zehaztasunez azaldu zieten zer den aurretiko borondateak izeneko dokumentua, hala nola zer prozedurari jarraitu behar zaion tramitatzeke eta erredaktatzeko.

BERDINTASUNEZKO ETA SEXU ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE

Agoizko Udaleko Berdintasun Arloak, berdinen arteko errespetua eta genero bortizkeriari zero tolerantzia adieraztea bultzatu nahi duenez, bi tailer interesgarri programatu zituen. Jai aurreko astean egin ziren biak, eta berrogeita hamar bat lagunek parte hartu zuten horietako bakoitzean.

Ruth Iturbidek (Giza eta Gizarte Zientzietan doktorea eta genero gaietan adituta) tailer bat eskaini zuen, zeinetan hausnartu nahi izan zuen gaur egungo gizartean errota dauden inkoherentziez. Hitzaldian baloratu zituen, besteak beste, berdinen arteko tratamenduaren galarazteko hartu daitezkeen neurrien helburuak eta edukiak, bizitza askeago eta beteago edukitzeari

begirako horietan azpimarra jarri.

Bestalde, Ana Beaumont genero aditutako psikologoak hitzaldi bat eman zuen sexu erasoaren aurka erabil ditzakegun tresna eta estrategien berri emateko. Modu berean, erasoak identifikatu, galarazi eta horien aurrean ekiteko oinarrizko ezagutza eman nahi izan zuen.

ELOKO TEILERIKO HILOBIA BEHIN BETIKO INSKRIBATU DA MEMORIAREN LEKUA BEZALA

Berriki, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Memoria Historikoaren zazpi leku berri inskribatzea, dagoeneko babes eta kontserbatzeko eta ezagutzera emateko neurri bereziak dituztenak. Horien artean dago Eloko Teileria, zeinetan hamaika agoztar hil baitzituzten 1936ko irailaren 19an, El Irati S.A. enpresaren langileak eta sozialistak, gehienak. Bi egun geroago eraman zuten Santos Itarte euskal nazionalista eta Irati ibaiko zentralako arduraduna.

Pasa den apirilean sei leku inskribatu ziren. Orain, horiez gain, honako hauek sartu dira

zerrendan: Kadreitako Valcardera Hobia, Ezkabako Ihesaldiko GR225a, Iberoko Hiru Gurutzeen Gaineko Hobia, Etxauriko Memoriaren Parkea, Berako Argaitzeko Harrobia eta German Rodrigezen oroitzapeneko eskultura eta aipatutako Eloko hobia.

Ana Ollo Herriarrekiko eta Instituzioekiko kontseilaria adierazi zuen «elkarbizitza dela Gobernu honen helburua eta, bide horretan, memoria paper protagonista duela». Gainera, adierazi zuen «leku horiek oso garrantzitsuak dira memoria eraikitzeke orduan, bereziki belaunaldien arteko transmisioan».



Lugares de Memoria
Memoria Tokiak

Bukatzeke, Ollok gogorazi zuen «memoria ez dela iraganeko afera bat, geroa proiektatzeko baizik, gure lurraldean inoiz gehiago ez daitezen ager jarrera totalitario edo antidemokratikorik».

1936. URTEAN FUSILATU ETA ERREPRESALIA TUEN ALDEKO OMENALDIA

Bederatzigarrenez, Agoizko Udalak omenaldia eskaini zien, Oroimenaren parkean, 1936.an egindako estatu kolpearen ondoren eraildako eta errepresaliatutako herrikoak, eta ekitaldira 250 bat pertsona hurbildu ziren.

Ekitaldian Josemi Gastón Memoriaren Nafar Institutuaren zuzendaria eta Ángel Martín Unzué Agoizko alkatea izan ziren, Nafarroako Fusilatuen eta Senideen Elkarteko (AFFNA 1936) Teileria Ahaztuak-eko ordezkariak eta eraildako eta errepresaliatutako senideez gain.

Aurten, egindako ikerketa lanen ondorioz, bi izan berri gaineratu zaizkio fusilatuen zerrendari. Hori dela eta, gogora ekarri zen Frente Popular Navaroren presidentea izan zen Leandro Villafranca Los Arcos agoiztarra, Orotz Betelun errefuxiatu zena eta Urrotzen erail eta lurperatu zutena bere hobia eginarazi ondoren. Halaber, Tirso Aldaz Jaurieta gogorazi zen. Aldaz Agoizko alkatea izan zen 1904-1906 urteren bitartean eta Noainen inguruan fusilatu zuten.



8 LIBURU GERRAREN IZUGARRIKERIA ULERTZEKO

Agoizko Udalak, liburutegiko materiala eta liburuak erosteko partidaren kargura, Aise Liburuak argitaletxeak Guda Zibilaz plazaratutako zortzi liburukiek osatutako bilduma erosi du. Espainiako gerra Zibilaren inguruko argitalpen zabalak argazki eta dokumentu grafiko asko eskaintzen ditu. Halaber, zerrenda luzea jasotzen du, existitutakoek, gudariak eta kanporatutakoek osaturikoa.

Historialariek gehien aztertutako gaietako

bat da Gerra Zibila eragin zuen errepublikaren aurkako ejertzitoaren alderdi baten bultzaturiko matxinada da, eta, Agoizko Udalak, memoria historikoarekiko duen konpromiso irmoari jarraikiz, uste du ezinbesteko adela gure historia hurbileko pasarte ilun horren informazio guztia eskaini eta zabaltzea.

Bilduma, zaindu eta babesteko asmoz, udal liburutegian baino ez da eskura izanen. Honako liburukiak dira:

1. La rebelión militar en Navarra
2. La represión en Navarra durante la guerra civil
3. La guerra en Araba. El levantamiento militar en Bizkaia
4. La guerra en Gipuzkoa
5. El Estatuto de Autonomía
6. La ofensiva de Mola. Defensa y caída de Bizkaia
7. Vascos en la guerra fuera de Euskal Herria. Represión en Bizkaia
8. Los protagonistas de la guerra

JAIETAKO BALANTZEA

Agoizko jaiak abuztuaren 10ean hasi eta hamalauan bukatu ziren. Giro onean igaro ziren, eta udalak antolatutako ekitaldietan herritar askok parte hartu zuten. 91.404 euroko aurrekontua izan zuten, publiko mota guztiari zuzendutako programazioa prestatzeko.

San Migel Abesbatzak, bere 75. Urteurrena zela eta, txupina jaurtiki baino lehen, urtean zehar nabarmendutako talde eta pertsona egin zaie errekonozimendua. Aurelio León aretoan egin zen, bigarren urtez. Horretarako prestatutako ekitaldian, gainera, saria ema zitzaien karteletako irabazleei.

Jaietako egun nagusiko goizean, prozesioaren ondoren, dantzak eta erraldoiak, ohikoa den moduan. Eta arratsaldean, berri, Aspe enpresako pilotari profesional arteko pilota partidarekin gozatzeko aukera egon zen.

Haurren Egunean Udala Txikiak hartu zuen protagonismoa. Korporazio Txikiak egiten ohi duen ekitaldiaz gain, zapiak banatu zitzaizen 2018. Urtean jaio ziren 28 haurrei. Eguerdian, «Agoitz Kantuz» ekitaldia sendotzen ari da, gero eta partaidetza handiagoa baitu, eta ezinbesteko bihurtu



da jai egutarauaren barnean.

Asteartean, Gazteriaren Eguna, Kostradaren Kofradiak saria eman ondoren, abesbatzako ahots grabeez kontzertu-bermuta eskaini zuen elizako belardian. Emanaldiarekin gogora ekarri eta ospatu nahi izan zuten 1945. urteko abuztuaren 13an zenbait gizonen eskaini zuten estreinako kontzertu hura. San Migel abesbatzaren jatorria izan zen. Arratsaldean, «Puro Relajo» taldearen emanaldia berri ere arrakastatsua izan zen.

Adinekoen Egunean bukatu ziren festak.

Hermanitas de los Pobres de Maiquetia zahra egoitzako adinekoek gaitariak eta erraldoiak jaso zituzten. Lehenengo aldiz, udal txikiak parte hartu zuten. Ondoren, eskaintza egin zitzaion San Migel patroiri, Bilaketa Ahots eta Instrumentu Taldeak girotu zuena. Parkean aperitiboa eskaini zitzaion Iraunkorrek Txarangak jotzen zuten bitartean (aurten jai egun guztietan jo du). Pilotak bete zuten arratsaldea, Muebles Polke IV. Txapelketa jokatu zelako. Agoizko Simplex taldeak jo zuen plazako dantaldian. Festak bukatu, heldu den urtekoen zain gelditu gara.

PARTAIETZA HANDIA SANMIGELETAN

Programazio anitza antolatu zen San Migel eguna ospatzeko. Eguraldi onak lagunduta, jende asko atera zen gure herriko kaleetara festa txikiak ospatzera.

Ostiral arratsaldean Foru Komunitateko 2019 Erremonte Txapelketako finalurreko partida eta beste partida bat jokatu ziren hiriko pilotalekuan. Angiluerreka elkarteak mus txapelketa antolatu zuen, eta, gaueko, kontzertu akustiko bat ere.

Larunbatean, azken urteetan ohikoa egin den moduan, dantzariak eta herrikoek antolatu zuten agramontar eta beaumontar

arren arteko guda eta ondorengo bakearen sinatzea ospatzeko, hala nola oihalgileen langintza irudikatzen, eskainitako ekitaldien programa: hamaiketako, kalejira eta dan-tzaldia. Ekitaldi ikusgarria, aurten Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Ondareari buruzko Europako Jardunaldien barnean txertatu dena. Horren ondoren herri bazkaria antolatu zen; eta, eguna boro-biltzeko, Trikidantz Taldea (arratsaldeko dantaldian eta gaupasan jo zuen) eta zenezuzkoa.

Igande goizean, irailak 29, Agoizko Gaitariak dianak jo zituzten. Hiriko patroien

omenezko prozesioa eta meza ospatu ziren Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak, Agoizko Gaitariak eta Milaur Taldeak kaleak hartu aurretik. Omenaldia egin zitzaion ere Carmen Ibarrola Espinal, hala nola aurten urrezko ezteiak egiten zituzten lau senar-emazterei.

Arratsaldean pilota partida jokatu zen (gizonen esku pilota eta emakumezko paleta-goma). Agendaren azken ekitaldia Agoizko San Migel Abesbatzak, 75. urteurrena ospatzeko programaren barnekoa, antolatutako abesbatzen topaketa bat izan zen.



ONDAREARI BURUZKO EUROPAKO JARDUNALDIAK

Berriz ere, Nafarroako Gobernuak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Europako Kontseiluak sustatutako Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak izeneko egitasmoari atxiki zaio. Aurten irailaren 27, 28 eta 29an gin ziren, "Artea eta Aisia" lemapean. 2016. urtean jarri zen martxan ekimena, eta, lau edizio geroago, egonkortuta dago, urteko kultur egutegian.

Edizio guztietan, Agoizko Udalak arrakastaz parte hartu du, eta proposamen anitzak eta erakargarriak egin ditu: Induriagako nekropolia ikustera joateko bisitaldia, Iratiko natur bidean barnako ibilaldia eta El Irati, S.A. eta Agoizko Istorioak erakusketetako bisitaldi gidatuak.

Aurten, herriko dantza taldearen laguntzarekin, udalak programan parte hartu zuen agaramontar eta beaumontarren arteko guda eta ondorengo bakearen sinatzea irudikatzen dituen dantzak eskainiaz. Agramontar zenbait eskuadroik hirian barrena desfilatuz zuten eta Nafarroa Beherea plazan beste hainbeste beaumontarrenkin elkartu ziren, guda eta bakearen sinatzea, zintak eta ezpatak erabilia eta txistu eta gaitaren erritmora, dantzen bidez irudikatzen.

Zita historikoak egur egunera ekartzen du 1479. urtean agaramontar eta beaumontarren artean ordura arte izandako gudari bukaera eman zion bakearen sinatzea. San Roman ermitan (Gendulain herria izandakoaren eliza zaharra) izan zen gertaera, Magdalena erregeordea bertan zela. Agaramontarren aldetik, Nafarroako Pedro izan zen, eta beaumontarrenetik, berriz, Luis Beaumont Leringo kondea. Biek, bakearen seinale, ezpatak iltzatu zituzten lurrean. Gure herriko armarran islatuta dago historiako pasarte hori: koroa (Magdalena

erregeordea irudikapena) eta lurrean iltzaturako bi ezpatak.

Herri bat batuta eta dantzan, bere historia gogorazten, goiz eder eta argitsu batean, San Migel ospatzeko antolatutako ekitaldien sarrera gisa.



AITORTZA EKITALDIA, AGOIZKO KULTUR TALDEEI

Pasa diren sanisidrotan Agoizko Udalak aitortza ekitaldi bat prestatu zuen Agoizko taldeentzat. José Amichis plazan antolatuz zen eta hunkigarria gertatu zitzaizen bertan elkartutako publiko ugariari.

Idoia Zabalzak euskaraz idatzitako hitz batzuen bidez gainbegiratu bat eman zion Agoizko kultur egutegiari, Aritz Ugaldek pianoa jotzen zuen bitartean. Patxi Huartek eta Josunek Etxartek ziren eginiko eskulturarekin eta horman margotutako

muralarekin apaindu zituzten kultur etxe-ko bi txoko, herriari bizia ematen dieten herrikoei esker ona adierazteko. Kultur kolektibo guztietako zenbait kidek zuhaitza eraiki zuten, bakoitzak adar bat jarri alde aurretik belardian ezarritako zuhaitzaren enborrari.

"Agoizkoak, zorionekoak gara kolektibo hauek guztiak ditugulako" esan zuen Carlos Villanueva "Txako" kultura zinegotziak, lehengo taldeak gogoratzen zituen eta berriei ongi etorria ematen zien bitartean. "Ez dadila inoiz hau gelditu!" hitzak esanda, bukaera eman zion hiriko kultura aberastasuna eman dioten berrogeitik gorako kultur taldeei eskainitako ekitaldiari.



JABIER VILLAREALEN OMENEZ

Pasaden ekainaren 11n zendu zen Jabier Villareal artista, 57 urte zituela, eta harekin arte nafarrak zuen pertsonaia berezietako bat joan zen. Bere obra, soziala, iradokitzailea, konprometitua eta berez-berezkoa beti, pintura, argazkilaritza eta teknologia berrien arloetan murgiltzen zen.

Jabier Villareal, artista izateaz gain, UPV-EHU-ko Arte Ederretako Sormen Multimedia eta Teknologia Grafikoko irakaslea zen 1987. urteaz geroztik. Erakusketa asko egin zituen, hemen eta mundu osoan zehar: Visual Arts Museum of New York-en; Downey Museum of California-n edo Indiana University Northwest-en (USA) edo, azken

garaian, Hangzhou-en (China).

Agoitzen ere bere arteaz gozatzeko aukera izan dugu zenbaitetan. 2014ko maiatzean, «ALU4601TZJVA2014» erakusketa ekarri zuen. Formatu handiko hamar obra ziren, aliminioz egindakoak, antzerkiaren estiloko paisaiak erreferentziaz hartzen zizutenak. Egilearen munduko ikuspegia eskaintzen ziguten, obretan erabilitako teknika mixtoak baliatuz.

Pasa den apirilean ere Agoiz-



ko Kultur Etxeko hormetan zitzilikatu zituen bere azken erakusketa izan zeneko pinturak. «Beltz» izena zuen. Pinturek Erroma zuten ardatz, eta berak «mental» eta «sentsual» deituriko mapa formatuan gauzatutakoak. Horretaz gain, lehen aldiz ikusgai jarri zituen «PAISAIA POST-LENTIKULARRA» gaiaren inguruan eginikoa lanak, teknologia aurrerakoiak (escanerra, laserra) erabiltzen zutenak, «hodei puntuak» izeneko gestiotik abiatuta.

Ezkerrik asko, Jabier, zure lana konpartitzeagatik.

XIV. ARGAZKI LEHIAKETA EBATZI DA

«Pensamientos» da Agoitz Hiria XIV. Argazki Lehiaketaren modalitate orokorreko argazki irabazlea. Ramón Leache Echeverria Agoizkoa da argazkiaren egilea. Nafarroako Parkearen irudi bukolikoa agertzen duen argazkiak ongi merezitakoa du oinarrietan ezarritako 500 euroko saria.

Herri mailan, Alfredo León Mañú izan da irabazlea. «Una mañana de verano» argazkiak Errotako aldapan goiz eguzkitsu bate-

ko ohiko eszena bat agertzen du. Alfredok 300 euro jasoko ditu argazkiarengatik.

Sari-emate ekitaldia abenduaren 13an ospatuko da. Egun berean, sariak eman eta gero, inauguratuko da bi sariketara aurkeztutako lan hoberenak jasotzen dituen erakusketa.

Aurten ere herrikoen sariaren jasotzailea bozkatzeko aukera eman zaie herrian

errolatutako guztiei. Aurkeztutako argazkien guztien artean epaimahaiak hiru aukeratu eta on-line aukeratzea izan dute herrikoei, udal web-orrian gaitutako formulario baten bidez.

Nabarmentzekoa da izandako parte-hartzea eta aurkeztutako lan guztien kalitatea; horrek epaimahaiari zaildu zion azken erabakia hartzea.



Modalitate Orokorra: "Pensamientos"
Ramón Leache Echeverria



Herrikoen Modalitatea: "Una mañana de verano"
Alfredo León Mañú

AGOITZERA AILEGATU ZIREN LEHEN INMIGRANTEEN FAMILIEI ERREKONAZIMENDUA EGIN ZAIE

Kultur Etxea jendez lepo, Agoizko eta Longidako Udalek Iratiren bazterrean bizitza hobeagoaren bila ailegatutako emigranteen familiakoei omenaldia eskaini zieten.

Industrializazioak, eta El Irati SA enpresak bereziki, erakarrita, XX. mendearen hasieran Agotzera heldu ziren lehen valentziarrak. Erreka-mutilak denak, Chelvatik eto-

ritakoak ziren, eta Irati ibaiaren bazterretan lan egin zuten enborrak garraiatzen. Leongo Bierzo eskualdeko Burbia herritik langile asko etorri ziren zerrategian lan egitera; eta hirurogeigarren hamarkadan, berriz, eraikuntzara lan egitera etorri ziren Ronda, Alpanseire eta Jaengo familia asko.

Ekitaldi xumea bezain hunkigarria antolatu

zen, dantza, irudiak eta narrazioak uztartu zituen. Harekin esker ona adierazi nahi izan zitzaizen herriri aberastasuna eta bizitza eman dioten horiei guztiei.

Gaur egun, ohikoak dira gure herrian Reillán, Cosin, Sánchez, Salvador, González edo Gómez abizenak.



KULTUR BALANTZEA



EKAINA. Ekainean zehar, zenbait kultur ekitaldi eta emanaldi izan ziren, horietako batzuk ikasturtearen bukaerarekin lotutakoak: UMAFY-ren ikasturte bukaerako kitaldia, DBH-ko 4. mailakoentzako diploma banaketa, «School of Rock» musikala eta Musika Eskolako ikasturte bukaerako emanaldia.

Ohi bezala, aurten ere agoizkoak Orreagara joan ziren erromerian ekainaren bigarren igandean. Hamarnaka pertsona joan ziren kolegiataraino Orreagako Ama Birjina gurtzera.

Kultur Etxeko areto handian ikusga jarri zen «Zaharbertitze, ehoziri, pintura eta arte plastikoko» aurtengo ikastaroetan eginiko lanak.

«Salto a escena-Oholtzara salto» berriro etorri zen Agoitzera. Arte eszenikoekin lotutako proiektu zabal batean txertatuta dagoen aktibitatea eskaini zitzaizen herriko gazteei.

UMAFY-ren 20. urteurrena zela eta, «Puro Relajo» taldeak emanaldia eskaini zion Kultur Etxeko entzutegia lepoz bete zuen publikoari.

Leku berean, Francisco Javier Oyarzun bekaren banaketa egin zen. Dirulaguntzak Nafarroan bizi diren 30 urtetik beherako gazteei zuzenduta daude, eta aurten X. edizioa egin da.



Iruñean dagoen Balentziako Etxeko Banda Sinfonikoak kontzertu bat eskaini zuen San Migel elizan, Enrique Huarte soinu-jole agoitzarraren partaidetza berezia izan zuena.

Abesbatzaren 75. urteurrenaren ospakizunen kariatara, taldeak kontzertu aparta eskaini zuen Iruñeko Orfeoiekin batera. Programan, musika erlijiosoa eta profanoa. Eta bi formazioek elkarrekin eskaini zituzten obren artean, keinu berezia egin zioten Mariano García konpositore agoitzarrari.

UZTAILA ETA ABUZTUA. Jai aurreko asteterako Angiluerreka Elkarteak antolatzen duen programazioa luzea bada ere eta jaietan ere eskaintza handia izanik ere, uztaila eta abuztuan ez da jaitsi kultur aktibitatea.

Kultur Etxean izan zen Sanfermines 78 Gogoan elkarteak sustatutako «Argazkiak Lekuko. Memoria gráfica contra la impunidad» erakusketan 1978ko sanferminetan izandako gertakizun bortitzen eta Germán Rodríguez heriotza eragin zion tragediari emandako erantzunaren irudiak biltzen dira.

Horretaz gain, José Hierro aretoan ikusgai egon ziren XXII. Jai Kartel Lehiaketara aurkeztutako lanak, haurrek Patxi Huartek gidatutako "Udan plastikatzeko" tailerren haurrek prestatu zituztenekin batera.

Mariano García musika bandak (aurten hogeigarren urteurrena betetzen du) udan eskaintzen ohi duen kontzertua eman zuen aurten ere Nafarroa Behereko plazan. Agoizko Gaitariak, beriz, uztaileko programazioaren azken emanaldiaren ardurdunak izan ziren, eta kalejira eskaini zuten karriketan barna.

Angiluerrekak antolatzen duen Garagardo Festa ezinbesteko zita bilakatu da udan, bertan lagun eta koadrila asko elkartzen baitira. Aurten uztailearen 20an izan zen, Merkatuko plazan.



IRAILA. Irailako kultur agenda Nafarroako Gobernuak sustatzen duen KULTUR programazioko Mikelats Dantza Taldeko «Ohi-turak» ikuskizunarekin hasi zen. Dantza emanaldi ikusgarria izan zen, uraren bidez, industrializazioaren historia kontatzen duena.

Jose María Arrizu zangozarrak «Errealismotik inpresionismora» izeneko erakusketan eraman zuen Kultur Etxera. Bertako areto nagusian ikusgai jarri zituen Nafarroako geografiako leku esanguratsuen irudiak: udaberriko loreen xehetasunak, iraganeko aktibitateen testigantzak (almadiak, esaterako) eta abar. Kolorea eta errealismoa izan dira erakusketaren ezaugarriak.

Ana Maestrojuáñen gidaritzapean, Ana Goya eta Ángel García Moneo aktoreek Urrezko Mendean deitu izan zitzaion horretan murgilarazi gintuzten "Loco desatino" antzerki obra zoroarekin. Ana Caro Mallén dramaturgo barrokoa, mende horretan idazteagatik lansaria jaso zuen emakume bakarra, izan zen istorioaren ardatza.

Agenda borobiltzeko, pintxo-potea egin zen hileko lehen larunbatean, gerran fusilatutako eta errepresaliatutako aldeko omenaldia ere, eta Rut Iturbide zaintzen garrantziaz eta adinekoren beharrei buruzko hitzaldia eman zuen. Horretaz gain, Agoitzen izan zen Pirinioetako paisaiari buruz ideiak kontrastatu eta adosteko programatutako jardunaldietako bat.



KOSTRADAREN XXI. LASTERKETA

Jaiak hasi aurreko egunean ospatu zen Kanpondoak, Agoizko Udalaren eta zenbait enpresen laguntzarekin, antolatutako Kostradaren XXI. Lasterketa.

Ekaitzak ezin izan zuen lasterketa geldiarazi, eta 18:00etan hasi ziren hurren kategorio probaldiak, urduritasun eta emozio biziak tarteko. 19:15ean hasi zen kategorio absolutuko lasterketa.

Berrehun bat lasterkari elkartu ziren, erdia proba absolutuan eta beste erdia hurrentzakoan. Lasterketaren hasieratik buruan

joan zen Aitor Etxeberria korrikalari gipuzkoarra gertatu zen irabazle. Emakumeen kategorian, Irene Guembe nafarra izan zen lasterketak zituen 4.600 metroak egiteko lehena. Herrikoen kategorian, Mentxu Rota e Iñaki Latasa izan ziren irabazleak.

Kanpondoak eta Agoizko Udalak eskerrik eman nahi dizkie Kostradaren Lasterketa berriro erre arrakastatsu gertatzeko laguntza eman duten horiei guztiei, hala nola enpresa kolaboratzaileei, eskerrak emateko.



AGOIZKO KE-AK BELAR ARTIFIZIALEZKO ZELAI BERRIA ESTREINATU DU

San Migel Futbol Zelai Berria dagoeneko belar artifizialezko gain berria erakusten ari da, eta denboraldi honetan bertan entrenatzen hasi da autonomia mailako taldea. Belarra aldatzeko proiektuak lohiaren pilaketa saihestea eta dreinatze falta zuzentzea izan du helburu, eta udalaren laguntza jaso du.

Inbertsioa 325.000 eurokoa izan da, BEZa barne, eta Agoizko Kirol Elkarteak eskatu duen mailegu batekin ordainduko da. Gainera, Udalak 15.000 euro eman dizkio, Gobernuak udalari nahieran erabiltzeko emandako funtsekoa. Laguntzaren baldintzak arautzeko, udalak hitzarmen bat sinatu du Agoizko Kirol Elkartearekin. Horren arabera, udalak 15.000 euroko dirulaguntza

emanen dio, urtero, mailegua irauten duen bitartean, elkarteak zorra amortizatzeko baino ez erabiliko duena.

Horretaz gain, inbertsio osoa estaltzeko, Kirol eta Gazteri Nafarroako Institutuari eta Nafarroako Futbol Federazioari dirulaguntza eskatu die.

AGOIZKO MENDI LASTERKETAREN IV. EDIZIOA EGIN DA

180 pertsonak parte hartu zuten Agoizko IV. Mendi Lasterketaren edizioan. Beroa izan zen Angiluerreka eta Kanpondoak, Agoizko Udalaren laguntzarekin, antolatutako zitaren ezaugarria, eta, haren ondorioz, aurikusitako baino horniketa puntu bat gehiago antolatu behar izan zen.

Lasterketak herria eta Zarikietako mendia lotzen ditu, eta, urtero bezala, bi luzera zituen. Lasterketa luzeak (maratoi erdia) 1.200 metroko desnibela zuen, eta, hartan, bi espezialista gailendu ziren, Xabier Zarranz (A4xKm) eta Mainer Fraile (Noaingo MT) hain zuzen ere. Irunberriko lasterkariak erraz irabazi zuen, 7 minutuko aldea atez

ra baitzion bigarren gelditu zen Jesús Mari Alegria arroniztarrari. Emakumeen kasuan, aldiz, garaipen airean egon zen azken unera arte, Frailek segundo batzuetako alde baina ez ziolako atera María Irigoyeni (Marmottrail).

Lasterketa motzagoaren kasuan (13 km, 650m+), 102 korrikalari ailegatu ziren: lehenak Iñaki Latasa Agoizkoa (Txurregi) eta Haizea Ramírez de Alda altsasuarra (Iratxo).

Laugarren edizio hau, aurrekoak bezala, oso arrakastatsua izan da, bai antolaketa bai kirol ikuspuntuetatik. Nabarmendu eta eskertzekoa da jendearen kolaborazioa, asko izan direlako dena prest edukitzeko eta lasterketak honek indarra hartu eta kirol egutegian leku nabarmena izan dezan lan egin duten pertsonak. Zorionak!



ESKU PILOTAKO UDAL ESCOLA, MARTXAN

Pasa den irailetik aurrera berriro hasi da udal esku pilotako eskola Toki Eder pilotalekuan. Juan Cruz Ozcoidi, Txus Abaurrea, Mikel Lako eta Dani San Martín dira eskolako trebatzaileak.

Jai-aurreko astean esku pilotako campus bat antolatu zen, arrakasta handia izan

zuen. Gure herriko hurren zaletasuna eta emandako erantzuna ikusita, esku pilotako eskola berreskuratzea erabaki eta izena emateko epea zabaldu zen.

Eskolako dinamika astean ordu bateko bi entrenamendu saio egitea da. Asteazkena eta ostirala dira aukeratutako egunak.

Haurrak taldeka antolatzen dira, adinen arabera, bakoitzak duen mailarekiko oreka bilatuz. Haurrek ongi pasatzea da helburu, pilotan jolasten ikasten duten bitartean.

6-16 urte bitarteko 40 haur animatu dira, dagoeneko.

EUSKARALDIA

Euskaraldiak, euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak, 220.000 pertsonaren partaidetza lortu zuen pasa den urean egin dako lehenengo edizioan, eta bi urtean behin ospatuko dela iragarri dute, hortaz, 2020. urtean errepikatuko da.

Euskaraldia, euskararen aldeko ekimeneak eta Euskal Herriko administrazioek bultzaturiko egitasmoa, 2019ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra garatu zen. Aipatutako 220.000 euskaldunek parte hartu zuten eskainitako «ahobizi» (jarrera aktiboa edukinahi zutenak) edo «belarriprest» (haiekin euskaraz egiteko gonbidapena egiten zutenak) profiletako batean.

Bigarren edizioan bi kategoria horiek protagonistak izanen dira berriz ere, euskarak eguneroko harremanetan eta bizitzaren arlo guztietan gero eta presentzia nabar-



menagoa izan, aurreko edizioan identifikatzeko erabilitako txapen bidez.

2020. urtean «berrikuntza» izanen da, hala ere: Antolatzaileek «paper aktiboagoa» emanen dit entitateei: instituzio publikoei, enpresei, komertzioei eta elkarteei. Pasa den urtean 200 entitatek bultzatu zuten Euskaraldia, eta 2020. urtean "haratago" joatea eskatuko zaie, «haien funtzionamenduan euskararen erabilera sustatzeko konpromiso zehatzak hartuz».

Egitasmoak martxan jartzeko aurretiko lan handia eskatzen duenez, herrietako batzordeak lanean hasi dira, dagoeneko.

ELAIDE WEB-ORRI BERRIA HELDU DA

Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek, Agoizko udalarena ere, elkarlanean sortu dute elaide.eus webgunea, euskaraz ikasten ari direnei laguntza eta baliabideak eskaintzeko helburuarekin.

Euskara ikasleentzako txokoa da Elaide. Euskarara hurbildu nahi dutenendako ikasketen prozesuan aurrera egin nahi badute,

euskaraz egiteko aukerak eta baliabideak bilatzen dituzten horiendako toki ezin hobea da.

Bertara sartzen denak honako hau aurkituko du: informazio eguneratua eta interesekoa, euskarazko aktibitateen agenda, bi asteroko buletina, euskara ikasteko dirulaguntzei buruzko informazioa, euskara

ikasi eta praktikatzeko baliabideak, hainbat web-gune eta proiektuetara estekak (euskaltegiak, mintzapraktika, Euskaraldia, tokiko hedabideak, etab.).



HELDUEN MATRIKULA KANPAINA

"Aukera galdurik? Ez horixe! Ikasi euskara" izan da Agoizko Udalak helduen euskalduntzea bultzatzeko burututako kanpai-

naren leloa, urtero bezala, irailean zehar martxan jarri dena.



Kanpaina Nafarroako 33 toki entitatek sustaturiko ekimena da, euskaltegi publikoekin (Zubiarte), AEK eta IKA gizarte inizatibekin, hizkuntza eskola ofizialekin batera egin da eta Nafarroako Gobernuaren laguntza (Euskarabidearen bidez) izan du.

Pasa den urtean hogeita hamar bat lagunek parte hartu zuten AEK-k Agoitzen duen euskaltegian antolatutako eskoletan, maila desberdineko hiru taldetan banatuta. Aurten, kanpaina bukatuta, matrikulek gora egin dutenez, lau talde osatuko direla aurrikusita dago.

EUSKOCHALLENGE

Agoizko Udalak Euskochallenge izeneko erronka bota zien Agoizko herritarrei, herrian euskarazko paisaia hobetzeko asmoarekin. Gonbidapen zehatza egin zuen jai-aurreko astean antolatutako film laburren lehiaketan botatutako iragarkiaren bidez: oker idatzitako kartelik, errotulurik edo

abarrik ikusiz gero, argazkia ateratzeko eta whatsapp bidez Udaleko Euskara Zerbitzura igortzea eskatu zen.

Jasotako argazki guztien artean zozketa egin eta irabazle gertatzen zenak saritxo bat jasoko zuen.

Epea bukatuta, bidalitako argazkien egileen artean, Laida Otero gertatu denez irabazle, berak jasoko du Kultur Etxeko euskarazko ekitaldi batera joateko sarrera.

Eskerrik asko, Laida, euskararen paisaia hobetzen laguntzeagatik.